

ELIZA ETA DIRUA

Informatu nahiz, izan naiz Baionako Auzitegian "Ortzaizeko afera" tratatua zen egunean, bi alderdietako abokatuen alegatuak entzuteko.

Egia erran, bihotz-erditurik atera naiz ikusirik Ortzaiztarrek orobat bizi duten zatiketa eta sufrimendua. Artetik ere gogorat jin zait 2009an, herriko bestak kari, herritar guziekin bizi izan dutan kantaldia, dudarik gabe azken urte hautan bizi izan dutan ederrenatarik.

Bistan dena, ni ez naiz nihor Ortzaiztarren arteko afera huntan sartzeko, eta nere solasa ez da gauzak gehiago mintzea. Halere, lehen emozioa pasatu eta gero, gauzak beste hari batetik hartuz, galdera hau da arranguratzan nauena eta hemen guzien hausnargai planteatu nahi dudana: zer da gaur egun Elizak diruarekilako duen harremana ?

Gogoeta-bide batzuk emaitako, iturri gisa hartu dut Frantziako Apezpiku Batzordearen Idazkaritzak argitaratu agiria (11/2004).

Haste-hastetik aitortu behar da Elizak diruarekilako duen harremana bikoitza dela, usu kulpabilitatez ere josia. Diruaz hitzegitea ariketa arriskutsua da, uztartu behar direlako pobretasun ebanjelikoa eta kudeakuntza arduratsua. Eztabaida beharrezkoagoa baizik ez da.

Oinarri-oinarrizko araua edo printzipioa da **ondasunen baliapen unibertsala**. Elizak gain-gainetik jartzen du jendaki guzien arteko duintasun parekoa. Kreatzaileak gizaki guzien jabetasun amankomunean jarri ditu ondasun guziak, eta nihork ez ditzake bereganatu besteak kondutan hartu gabe. Jabetasun pribatua ez da niholaz ere eskubide absolutua, beti ondasunen baliapen unibertsalaren mendeko gelditzen da. Lehentasuna du jendaki orok bizitza duin baten eramaiteko beharrezko guttiaz gozatzeko duen eskubideak. Ondorioz, jabetasunak **murriztu-ezinezko izari soziala** dauka.

Hori erranik, galdera da: nola Elizak aplikatzen ditu bere buruari adierazten dituen arau etikoak ? Zehazki, *"nola uztartu pastorgintza* (Elizaren fedearen bizkortasunetik sortu jarduera, orori bere behar izpiritualen araberrako hazkurria eskaintzea helburu duena) *eta lur ondasunen kudeakuntza ?*

Lehen egitekoa da jabetasunaren zilegitasuna ongi aztertzea eta baloratzea. Alabaina, ongi hauteman behar da zer den Eliz ondasuna eta nola osatua izan den. Huni loturik, ikusi behar da zertarako erabilia den: zer da haren baliabide ekonomikoa ?

Huna Apezpiku Batzordearen adierazpen zorbait:

- Elizak ardurakor delako irudia eman behar du, *"bere garaikideen behar izpiritualeri ihardesteko axola duela, Ebanjelioa ezagutarazteko bere bokazioneari leial dagola, gizartearen ongizatearen alde lanean ari diren erakundearen artean kokatzen dela..., esku artean dituen ondasunen jabetasuna eta kudeaketa xoilik bete behar duen misionearen zerbitzuko direla."*

- *"Guzien probetxua da gure kudeakuntzaren lehentasuna... Gure kudeakuntzak gardena eta arduratsua izan behar du...; aldi berean, arau moraletan oinarritu behar du eta probreenekin partikatzen deitu."*

- *"Kudeakuntza, ebanjeliozko lekukotasunaren akta ere bada."*

Batikanoko II. Kontzilioak berresten du "Eliz misionearen sustenguzko ondarearen kudeakuntza". Hortarik ateratzen du Apezpikuen Batzordeak Eliz ondasun bat *"ez dela niholaz ere, ez eta partzialki ere, administratzaileen jabetasuna, izanik ere eliz karguduna..."*

Kudeatzaileeri buruz hauxe dio: parropi multzoei doakioten *"parropi ohien ondasunak, nahitez desorekatuak, integratzea eta hauek baliatzea pastoral erabilpen ber-pentsatu eta arraberritu baterako. Hunek ondarearen aldakuntza ekar lezake, baina hau ez daiteke hitzartzerik gabe, ez eta oroz gainetik elkarrizketa luzeen ondorioz ardietsi adospentik gabe egin..."*

Batzordeak bestalde dio: *"Pastoral hautapenen erronkak ez ditaike bakartian tratatu... Agintaritzak, Elizak, aldi berean pertsonala eta koleziala – edo sinodala – da... Nork ez du ikusten Pastoral Kontseilua (gehienbat laiko osatua) eta Ekonomi Kontseilua kasik ezinbestekoak direla jagoitik, eta hauen ardurak elgarren lagungarri eta osagai direla ?"*

Agiri huntarik ateratzen dutan erakaspina da grina soziala, zuzentzea, gogo ekimentsua, zorrotasuna, gardentasuna, elkarrizketa, kolegialitatea... direla gaia tratatzeko oinarritzko

irizpideak.

Azkenik, tokiko egunkari hedatuenak galdetzen duenean "Jainkoaren ala herriaren etxe", erran nezake etxea zenbat eta herritarrago eta are jainkotiarrago dela, eta, alderantziz, zenbat eta jainkotiarrago izan nahi eta are herritarrago izan behar duela.

Nere xedea litaik beste herritar (eliztar edo ez, fededun edo ez) zonbait gai huntaz jabetzea, eztabaida hau guzien onerako hazteko. Ortzazeko esperientzia mingarriak hortarako balio balu...

Peio Ospital
2015-03-16